



TXIKITTO!

GOAZEN EGIPTORA



2023ko ekaina 217. zenbakia

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
AITXITXA-AMAMEKIN .	8-9	ZU BAI MARGOLARI ...	16
BERBETAN			
SANJUANAK	10		

 **eta kितto!**
euskara elkartea

Argitaratzailea
“...eta kितto!”
Euskara Elkartea
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Zer esaten dio argi batek beste argi bati?
- Zer argia zaren!



Juanito bere amarengana joaten da eta esaten dio:

- Ez dut eskolara joan nahi.
- Zergatik?
- Oso aspergarria delako.
- Baina, baina, eskolara joan behar duzu,
45 urte dituzulako eta zuzendaria zarela.



- Ama , ama gaur ikasi dut munduak birak ematen dituela.
- Oso ondo Jaimito , joan erosketak egitera.
- Ados.

Ordubete pasa eta Jaimito banku batean dago. Amak ikusi eta esaten dio:

- Jaimito , zer egiten duzu hor?
- Ama , eskolan ikasi dut munduak bueltak ematen dituela eta zain nago denda paretik pasatu arte.



Andereñok:

- Hurrengo astean zuzendaria etorriko da eta autotik ateratzen denean garrasi egin behar dugu: BERRIRO, BERRIRO, BERRIRO!!!! Eskilarak igotzen dituenan denok batera : Eeeeeeee!!! Eta gelan sartzen denean: ZUZENDARI, ZUZENDARI!!!!



Hurrengo astean zuzendaria dator eta autotik ateratzen denean kaka zapaltzen du eta ikasle guztiak: BERRIRO, BERRIRO, BERRIRO!!!!

Eskilarak igotzen ditu, estropozu egiten du azal batekin eta denak: EEEEEEEEE!!!

Gelara heltzen da eta norbaitek puzker bat botatzen du eta andereñok esaten du:

- Zein izan da ?

Eta denak batera esaten dute : ZUZENDARIA , ZUZENDARIA!!!!



ANTZINAKO EGIPTO



San Andres eskolako ikasleek eurek proposatutako gaiak landu dituzte aurtten. Horrela, robotika eta bideo-jokoak izan dituzte ikasgai lehendabizi, eta azkenik Antzinako Egipto landu dute. Gauza asko ikasi dituzte eta horrela kontatu digute:

BIDEOA





Hasteko, mapa batean Egipto kokatu dugu. Horrela, Afrikako ipar-ekialdean kokatzen dela ikusi dugu eta bere mugen artean Sahara Basamortua dagoela.

Baina Egipto ez da ezer Nilo ibaia gabe. Munduko bigarren ibairik luzeena da eta herrialde osoa zeharkatzen du.

Uholde garaian ibai ertzeko lurak lokatzez betetzen dira, lupetza esaten zaio eta horrela oso lur emankorra bihurtzen da.

Ez pentsa urak etxeak urtero harrapatzen zituenik, ez. Bere lurraldea oso ondo ezagutzen zuten eta muinoetan eraikitzen zituzten etxeak nekazariek.

Baina nork agintzen zuen lurralde horretan? Ba, faraoiak. Botere osoa zuen, beti egin behar zen berak esaten zuena. Horietako batzuen bizitza landu dugu: Tutankamon, Ramses II, Hatshepsut, Cleopatra eta Keops.

Hiltzen zenean bere gorputza momifikatu eta sarkofago batean sartzen zuten. Eta zer egiten zuten sarkofagoarekin? Ba faraoiaren ondasun guztiekin piramideetan sartzen zuten.

Eraikin hauek langile askoren laguntzaz egiten zituzten. Harrizko bloke handiak urrutitik ekartzen zituzten itsasontzietan Nilo ibaian zehar.

Oso antzinako gauzak dira hauek guztiak, ezta? Eta nola uste duzue izan dugula hauen berri? Ba aztarna asko aurkitu dira, baina idatziak ere topatu dira. Ez gureak bezalakoak, ez. Hauek hieroglifikoetan idazten zuten. Sinbolo ezberdinak erabiltzen zituzten. Papera erabiliko zutela uste duzue? Ba, ez. Landare bat erabiliz egiten zuten papiroaren gainean idazten zuten. Benetako artista izan behar zen horrela idazteko!

Egindako lan guztiak maketa batean jaso ditugu. Oso ondo pasatu dugu hau dena egiten, gehien bat taldean lan egin dugunean.

**OIER GINALDO,
8 URTE**



**URKO BAGLIETTO,
8 URTE**



**LIBE BALLONA,
9 URTE**



**NAIA BALENTZIAGA,
8 URTE**





ITURBURU

Iturburuko baratzean udaberriko lan piloa egiten ari gara. Alde batetik, neguan ereindakoaren uzta jasotzen ari gara, ilarrak eta berakatzak adibidez eta, bestetik, udaran jasoko duguna landatzen (piperrak, tomateak, letxugak, kuiak, kuiatxoak, alberjinak edo berenjenak...) eta ereiten (artoa, errefaua...) . Aurten, lore eta erraboila edo bulboak erin eta landatu ditugu eta lore batzuen eta baratzeko landareen arteko "elkarlanaz" ikasi dugu: tomatea-tajetea, alisuna- piperrak... Baina horretarako alde aurretik lurra prestatzen eta ongarritzen ibili gara.



ARRATEKO ANDRA MARI

Maiatzean zehar, maila guztiak Coliseora joan ziren hainbat antzezlan ikustera. LHko 3. Ziklokoek "Heziketa sexuala"ri buruzko tailerra izan zuten eskolan bertan. LH 5.mailakoek primeran pasatu zuten Azitaingo Suhiltzaileen egoitzan! 6. mailakoen bertso-emanaldia ere izan genuen Coliseoan. Eko-ordezkariek Agenda 30eko udal-plenora joan ziren eskolako proposamenak eta konpromisoak aurkeztera. Eta ikasturtea amaitu aurretik, LHko ikasleak Arratera joan ziren, eta 3. ziklokoak Oñatiko Lehen Gizakiaren inguruko museora. Azken egunean, ekainaren 21ean, ikasturtea ongi amaitzeko, dantzalditxo bat izango dugu, San Juan Sua eta ondoren, 6. mailako ikasleak agurtuko ditugu. Muxu potoloak ikastetxeko denon partetik eta zorte on hasiko duzuen etapa berri horretan!!! Ongi-ongi amaitu eta oporretan gozatu!!!!!!

AMAÑA

Kaixo lagunok! Amañako eskolako ikasleak oso pozik gaude Guraso Elkarteak guztiontzako kamisetak banatu dituelako. Superdotore egongo gara aurrerantzean egingo ditugun irteera, jai eta ekintza berezi guztietan!!! Politikak dira, ezta? Eta orain oporrak datoz, ondo merezi dugun atsedena hartzeko momentua. Ondo-ondo pasa guztiok oporretan, asko-asko deskantsatu, hurrengo ikasturtean indartsu etortzeko berriro eskolara. Ondo pasa!





URKIZU

LH 1ekoak Ezkio eta Gabirian izan dira, LHko 3., 4. eta 5.ekoak Lasturren, LH 6koak Otxandion. Coliseora joan gara, Zinea euskaraz, antzerki-lanak eta "Ipurterre" sari banaketa ikustera. Herri Kirolak ere praktikatu ditugu, eskolara etorri diren kirolariek. LH6koak Atzegi elkartekoekin izan ziren. Maiatzaren 12a egun haundia izan zen gure eskolan: Kulturarteko eguna. Herrialde askotako pertsonen bisita jaso genuen, haien ohiturak, musika, dantzak eta janariak ezagutuz. "Tantanez tantan" astea ere izan genuen eta egunean bertan Urkizuko parkean zintzo-zintzo izan ginen gantxila eskuz esku pasatzeko. "Beno, Txikittozale guztiok; oporretaz asko disfrutatu eta irailan itzuli berriz ere eskolaren abentura zoragarria bizitzera! A! eta besarkada haundi bat azken aldiz Txikitto jaso duzuen LH 6ko neska-mutiloi.



SAN ANDRES

Aurreko hilebetean, maiatzaren 16, 17 eta 18an, Eibarko eskoletako ikasleek Coliseoan antolatu zen bertso-jaialdian parte hartu zuten. Hiru emanaldiak primeran atera ziren, eta gure bertsoak abesteaz gain, aukera izan genuen beste bertso pilo bat entzuteko ere. Baina ikasturteari bukaera aparta emateko, maiatzaren 31n, Zarautz eta Oñatitik etorritako Aimar eta Aitor bertsolari gazteekin solasaldi dibertigarria eta dotorea izan genuen.



LA SALLE

Kurtsoa bukatzean dago eta topera gabiltza irteera eta ekintzekin: LH1ekoak Basondora egin dute irteera animaliak ikustera, eta, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, primeran ibili ziren. LH3koak Lasturrera gaua pasatzera joan ziren eta LH6koak, Barria eta Hondarribira Eusko Jaurlaritzako egonaldietara. Horrez gain, kurtso bukaerako Makrofiesta ospatu genuen eskolan, familia giroan, Caribe Mix Hondartza gaiaren inguruan. Apar-festa, jolasak, bazkaria, eskulanak... Gauzak pila bat izan genituen eta primeran pasatu genuen!!



ALDATZE

Maiatzean Aldatze ikastetxeko 1., 2. 3. eta 4. mailakoak urteko txangoa egin dute. 1. eta 2. mailakoak Beirera joan dira bi egun pasatzera eta bisita interesgarria egin dute Oliteko Gaztelura. Bai gaztelu polita! Ipuinetakoa zirudien! Bestalde, 3. eta 4. mailako ikasleak Hondarribira joan dira, haiek ere bi egun egin dituzte han. Kayak ikastaroa egin zuten eta oraindik hankak hotz hotzak dituzte... Baina zelako ondo pasatu zuten! Orain oporretaz goatzera, ondo pasa!





Maria Jesus Taboada eta Gorka eta Aratz Fernandez: « Eskolan debekatuta genuen euskaraz berba egitea »



Urkizuko eskolan elkartu ditugu Maria Jesus amama eta Gorka eta Aratz bilobak, bertan ari dira ikasten-eta. Ordubete polita igaro dute hirurek, gaztetxoek galderak egiten eta amamak galderei erantzuten. Hona hemen elkarrizketa polit honen emaitza.

Kaixo, amama, zelan zaude?

Oso oso pozik! Ilusio handia egiten dit nire bi bilobek elkarrizketa egitea, eta gustora erantzungo diet galdera guztiei.

Noiz eta non jaio zinen?

1954. urtean jaio nintzen, Arrateko Muitza baserrian.

Noiz arte bizi izan ziren baserrian?

3 urterekin Eibarrera jaitsi ginen.

Zer nolako familia zineten?

Handia, oso handia. 12 ginen etxean, gurasoak eta 10 anai-arreba. Gurasoak galiziarrak ziren, aita lan egitera etorri zen handik Eibarrera.

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oroitzapen onak ditut. Etxeko txikiena nintzen eta mimo guztiak niretzat ziren. Alde handia dut anai-arrebekin.

Eta nola gogoratzen dituzu eskolako urteak?

Nik ere hemen ikasi nuen, Urkizu eskolan. Neskak eta mutilak bereizita geunden, eta euskaraz egitea debekatuta zegoen. Horregatik ez dakit nik euskaraz, etxean ez nuen euskararik eta eskolan debekatuta zegoen...

Zelako ikaslea zinen?

Ez oso ona. Ez zitzaidan ikastea gustatzen eta 12-13 urterekin ikasketak utzi eta lanean hasi nintzen. Goizegi. Gaur egun damututa nago; oso garrantzitsua da ikastea eta horregatik esaten dizuegu zuei hainbestetan ikasi eta ikasi egin behar duzuela.

Nola pasatzen zenuten denbora librean?

Jolasten, orduak eta orduak ematen genituen kalean jolasten: harrapaketara,



Noiz sartu zen telebista zure etxean?

13 bat urte izango nituen. Horren aurretik, Maria Luisa izeneko bizilagunaren etxera joaten ginen etxebarruko ume denak, hark bazuen-eta telebista. Gure etxean irratia entzuten zen. Pentsa, jaunartzea egin nuen egun berean erosi zuen aitak irratia ni zoriontzeko jarritako dedikatoriak entzuteko.

Nora joaten zineten oporretan?

Umetan inora, baina pixkat koskortu nintzenez ahizpak eramaten ninduen Errioxako herri batera, ezkondu nintzenera arte.

Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

Justuan. Telefono mugikorra besterik ez dut erabiltzen eta deiak eta mezuak bidali eta jasotzeko bakarrik. Ordenagailuak eta horrelakoak ez zaizkit bat ere gustatzen.

Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Labadora dudarik gabe. Baserrian bizi ginenez ni ez baina nire ahizpak han inguruan zegoen iturri batera joaten ziren arropak garbitzera, pentsa!

Euskara nahikoa egiten al da Eibarren?

Ez, ez, oso gutxi egiten da. Kanean gehiago egin beharko litzateke, eta dendetan, tabernetan... ere bai, asko lagunduko liguke horrek euskaraz ez dakigunoi.

Zenbat aurreratu dugu genero-berdintasunean, amama?

Askok, orain nahiko parekatuta gaude. Lehen, aman eta ahizpen artean eramaten genituen etxeko gauza guztiak, gizonezkoek ez zuten ezer egiten. Zorionez, gaur egun zuen etxeetan ikusten duzuen moduan, aitatzok eta amatxok gauza berak egiten dituzte. Dena dela, oraindik ere bada zer egin.

zapitxo-zapitxora, ezkutaketara... Oso ondo pasatzen genuen. Auzoko ume pila bat elkartzen ginen. Eta uda partean Iparragirretik gora zegoen putzu handu batera joaten ginen bainatzera, lehen ez zen hain ohikoa hondartzara joatea-eta.

Nola gogoratzen duzu orduko Eibar?

Tailer asko zeuden, orain baino gehiago. Etxabe guztietan zegoen tailer bat, eta oraindik gogoan dut tailerretako usai hura...

Zer botatzen duzu faltan Eibar hartatik?

Jaietako giroa. Gaur egun giroa egon badago baina lehengoa beste gauza bat zen. Bestetik, etxebarruko atek zabalik zeuden beti, eta bat-taren eta bestearen etxera joaten ginen bizilagunak, Gabonetan... Orain aldamenen zein bizi den ere ez dakigu barren!

Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna?

Anbientea, zoragarria da eta inguruan ditugun mendiak.



SAN JUAN JAIK BADATOZ!

Eskolako oporrekin batera eibartarrok horrenbeste maite ditugun San Juan jaiak gainean ditugu. Gorde ondo zuen buruetan ondorengo informazioa, ondo etorriko zaizue eta. Badatoz sanjuanak jai-giroz beteta! Ez da aspertzeko segundo bakar bat ere egongo! Adi!



Ekainak 23, barixakua:

- 12:00etan:** Untzagan, kuadrillak elkartu eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino.
- 13:00etan:** Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei eta kalejira Untzagaraino.
- 13:30ean:** Udaletxetik, pregoia eta txupinazoa.
- 13:45ean:** Udaletxean, Sanjuanetako kartel-lehiaketaren sari-banaketa.
- 17:00etatik 20:00etara:** Untzagan, klarion-tailerra.
- 17:30etik 20:30era:** Urkizun, umeentzat puzgariak.
- 18:00etan:** Untzagatik, kalejira Ustekaberekin.
- 19:00etan:** Urkizutik, Lizarrako erraldoi, buruhandi eta Dultzaineroen kalejira.
- 19:30ean:** Untzagatik, kalejira Irulitxa fanfarrearekin.
- 23:00etan:** Untzagan San Juan Sua eta Neledantzaren ikuskizuna.
- 00:00:** Danborradaren alardea.
- 00.15etik 04:00etara:** Untzagan, Lisker taldea.

Ekainak 24, zapatua:

- 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara:** Untzagan, “Munstroaren koloreak” jolas-parkea.

18:00etan: Eibarko Bizikleta Plazan, San Juan City secrets makro-ginkana kuadrillentzat.

19:00etan: “Kale zirkoa”.

19:00etan: Umeen daborrada.

20:30ean: Untzagan, umeen pregoia.

22:00etan: Erromerixa Untzagan Jainaga eta Narbaizarekin.

23:30ean: Soka Dantza Untzagan.

00:00etan: Suzko erroberak.

Ekainak 25, domeka:

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Errebal Plazan “Munstroaren koloreak” jolas-parkea.

17:30etik 20:30era: Urkizun, umeentzat puzgariak.

18:00etan: Urkizutik, Bergarako erraldoiak eta Lizarrako Dultzaineroak.

18:00etan: Untzagatik kalejira Africa Baj Yay taldearekin.

19:00etan: Untzagan, “Eta orain zer” kaleko-dantza.


19:00etan: Erdigunean, “Kermes del vermú” kale-antzerkia.

20:00etan: Untzagan, kontzertua Afrika Bi-bang taldearekin.

23:00etan: Suzko erroberak.



DESBERDINTASUNAK



HIZKI-ZOPA

Ea aurkitzen dituzuen Debabarreneko hamar mendiren izenak

G	V	A	K	A	L	A	M	V	A
A	L	M	I	K	I	K	U	T	G
L	A	T	B	U	R	I	D	R	A
D	R	A	T	R	A	N	T	V	R
A	R	N	O	M	O	I	Z	T	A
R	A	O	N	K	T	S	K	Z	G
A	R	T	A	R	R	A	L	K	O
M	E	N	D	B	B	I	L	E	T
I	K	A	R	J	K	A	T	A	I
N	U	T	R	A	A	B	E	R	T
O	S	K	O	U	R	A	T	A	I
I	V	I	N	A	K	O	K	R	T

IGARKIZUNAK

Bi anai gorri, beti elkartuta. Berba egin nahi dute, orduantxe banaketa.

Gona luzea du, mihia motza; urrutitik entzuten da haren kantu hotsa.


Zuria bada, ez da irina. Beltza bada ez da ikatza. Mintzatzen da, ez du mi-hirik. Korritzen du, ez du hankarik.



LABIRINTOA



ERAGIKETAK



Egin eragiketak eta emaitzak dagokien kolorez koloreztatu



7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **UZTAILAK 6** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa MALEN txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Liburuak teilatuan 6 urtetik aurrera**

Ohartu al zara? Arrainak leihoan igerian al dabilta? Teilatua liburuz egin al dago? Eta semaforo bat al dago etxeko ate parean? Lehenengo begi kolpera, liburu honetako etxea arrunta irudituko zaizu, baina arretaz behatzen baduzu, berehala ikusiko dituzu hamaika gauza eta egoera xeble.

**Marimatrakak Gora Sanferminak! 8 urtetik aurrera**

Bueltan dira berriz ere gure marimatrakak! Eta oraingoan ere ez digute kalerik egingo eta primeran pasatuko dugu liburu honetako orrialdeak irakurtzen. Oraingo honetan, Txupinazoarekin bat, marimatrakak txuri-gorritz jantzi dira. Sanferminak iritsi dira eta jai-girorako prest ditugu gure protagonistak.

**Onin eta surf txapelketa 10 urtetik aurrera**

Jack Suzkotxima maltzurak plan bat dauka surf-festa handia amesgaizto bilaka dadin. Bere helburua lortzen badu, marrazoek surflariak jango dituzte... Lehenbailehen geldiarazi behar dugu! Kortsario zahar baten eta gure lehen-gusu Siraren laguntzaz, agian lortuko dugu hondamena saihestea.

**BITXIKERIAK**

Bihotzak 100.000 aldiz taupatzen du egunean, eta minutuko 5 litro odol botatzen ditu.



Eguzkia lurra baino 30.000 aldiz handiagoa da. Bere nukleoa 15 milioi graduko tenperaturara iritsi daiteke.

Giza garunak elektrizitatea sortzen du etengabe, lanpara txiki bat pizteko adina.





Pinguiren altxorra

Bazen behin, Antartikan, Pingu Rotxita Pira izena zuen pirata bat. Zazpi urte zituen, moko-luzea zen eta txankletekin ibiltzen zen beti. Pinguik 3 urte zituela bere gurasoak itsasoan nabigatzen zenbiltzala desagertu ziren eta bakarrik bizi zen ordundik. 7 urte zituen, baina bere kabuz bizitzen ikasi zuen.

Egun batean, kohete bat erori zen bere etxe ondoan, itsasoan. Jakin-minez, kohetera sartu zen eta barruan maleta handi bat aurkitu zuen. Maleta zabaldu, eta hara non ikusi zuen diru pila bat. Nahi gabe botoi bati eman eta kohetea piztu egin zen. Ezagutzen ez zuen planeta batera zeraman. Lurreratutuz zenean, atea zabaldu eta bi izaki oso xeblebre ikusi zituen berari begira-begira. Batek txakur-itxura zeukan, baina aingeruen antzeko hego handi eta horiak zituen, eta hegan egiten zuen. Besteak arkatza zirudien, baina gerritik behera sei garro zituen, eta buruan astronautena bezalako kasko garden bat.

—Kaixo, non nago? Nortzuk zarete? - galdetu zien Pinguik ahots dardartiz bi pertsonaiei.

—Gu Pulpy Ola Arkatz eta Pat Fly Dogy gara - erantzun zion arkatz itxurako olagarroak.

—Eta zu nor zara?

—Ni Pingu Rotxita Pira naiz eta Antartikatik nator. - erantzun zion Pinguik oraidindik apur bat mesfidati.

Etxeek irla txikiak ziruditen, zuhaitzez eta itsasoz inguratuta. Pinguiri, nola ez, arrainak etorri zitzaizkion burura, hau gosea! Bere bi lagun bitxi haiei galdetu zien ea zerbait jateko bazeukaten, eta ezetz erantzun zieten, beraiek ez zutela jaten. Pinguik zuhaitz batetik makila bat hartu, motxilatik pita zatitxo bat atera eta lurtean arrastaka hasi zen. Lurtean zizare bat aurkitu eta pitaren puntan ipini zuen. Kanabera bat eraiki zuen ziztu batean. Pita eta zizarea itsasora bota eta geldi geratu zen. Orduan, arrain batek zizarea aheratu eta Pinguik kanaberari helduz uretatik atera zuen. Besteak zur eta lur geratu ziren. Jakinda planeta horretan ez zutela jaten, Pinguik suposatutako sukaldari ere ez zutela izango eta makila gehiagoren bila hasi zen sua egiteko. Lehenengo arraina, gero zuhaitzetako fruituak ere jangarriak zirela erakutsi zien, laranja, sagarrak, madariak... Pat eta Pulpy guztiz txundituta geratu ziren. Janari festa horren ondoren Pulpy hitz egiten hasi zen, ipuin kontalari ezin hobea zen. Piratei buruzko istorio bat kontatzen hasi zen.

—“Itsasoetako marinela bi ezagutu nituen orain dela urte asko, Mutur-luze eta Txankla Pira. Sekula ez zuten altxorrik aurkitu, baina diruz betetako maletatxo bat zeramaten beraiekin. Maite zuten nabigatzea, itsasoari begiratzea, itsasontzian bizitzea... Baina egun batetik bestera desagertu egin ziren. Jendeak dio



munduko txoko ezkutu batean bizi direla eta beraien maleta munduan zehar dabilela...”

—Aaaaaaaa! Nik ikusi dut maleta! Kohetea dago! - esan zuen Pinguik oihuka.

—Ze maleta? - galdetu zion Pulpyk oraindik apur bat haserre.

—Ba zure ipuineko maleta hori! Eta uste dut marinela horiek ezagutzen ditudala! Nire gurasoak dira!

—Nire gurasoak marinela ziren eta itsasontzi bat zeukaten. Ni txikia nintzenez desagertu ziren eta ezin izan ditut sekula aurkitu- kontatu zien Pinguik triste xamar.

Orduan kohetea konpontzeko tresnak hartu eta ziztu bizian kohetera joan ziren hiru lagunak.

Maleta zabaldu eta dirua ateratzen hasi ziren eta, a ze sorpresa! Maleta barruan txanpon erraldoi bat zegoen. Txanpona eskuan hartu eta konturatu ziren txanpona erditik zabaldu zitekeela. Txanponaren barruan mapa bat zegoen! Eta mapa horrek Pinguiren gurasoak bizi ziren irlarako bidea zeukan marraztuta.

—Eskerrik asko lagunak, zuengatik izan ez balitz ezingo nintzateke bueltatu planeta honetatik—esan zion Pinguik hunkituta.

—Hau zuentzako— Pinguik maletako dirua eman zion Pulpy eta Pati.- Nik ez dut dirurik nahi, nire altxorrik handiena nire gurasoak aurkitzea izango da.

—Eta hau zuretzako Pingu!-. Planeta sekretura bueltatzeko gonbidapena eman zioten bi lagunak eta atzean planetara heltzeko mapa margotu zioten.

—Eskerrik asko!! Izugarriak zarete! Bueltatuko naiz lagunak!

Kohete barrura sartu eta gurasoen bila abiatu zen. Mapa jarraituz irla batera heldu zen eta itsasontzi bat zegoen. Itsasontziko bela apurtuta zegoen. Orduan Pinguiri zerbait bururatu zitzaion: beti zeraman aldean bere poltsa, txapel eta zapiz betea. Zapi guztiak elkarrekin josi eta itsasontziarentzat bela berria egin zuen.

—Orain bai berriro elkarrekin!— oihukatu zuen Pinguik zoriontsu.

Zein izango da hurrengo abentura?

AMAÑA IKASTETXEA

ZU BAI MARGOLARI!

